

## LEZOKO NEKAZARITZA XX. MENDEAN

### a) NEKAZARITZAREN INGURUKO BERRIAK

**L**ezion arrantzale gutxi dagoenez gero, lehenengo arloaren ardatza nekazaritzan oinarritzen dela esan beharra dago. XX. mendearen hasieratik, Lezoko nekazaritzan baratze eta abereen arteko konbinaketa bat izan dugu. Baratzeke lana oso finkatua dago oraindik, baina aziendak (behiak, eta ardiak batez ere) egunetik egunerao gero eta garrantzi haundiagoa dutela garbi agertzen zaigu.

Jakina denez, hirurogeigarren hamarkadan indartzen eta finkatzen da erabat Lezo eta bere bailarako tankera industrial, lantegiak eta tailerrak nonahi azalduz. Honelaxe eta denboraldi motz honetan Lezo Erreterialdeko industri-gunean murgildurik gelditzen zaigu.

Lezon, nekazaritza lantzen duten baserrien kopurua 57koa da. Baina kopuru hontan gogoan eduki behar dugu zenbatek lan egiten duten dedikazio osoz eta zenbatek erdizka, hau da, nekazaritza beste arlo batekin konbinatuz. Azkeneko kasu honetan, industrigintzan lanaldi osoa sartu ondoren, gainerako orduak baserrian ihardutzen dira, honela bi iturritako sarrerak konbinatuz.

Lezoko baserrien egoerari buruzko ikuspegi bat emateko, 1972ko, eta ihaz neronek egindako Nekazal Zentsoetara jo dut. Baina hauek 0,1 Ha-tik gorako edozein lur zati «explotazio»-tzat jotzen dute eta honela baratzeak edo lorategiak besterik ez diren hainbat lur zati nekazari explotaziotzat hartuz.

Datuei jarraituz, Lezo ehun nekazal lantegiz osaturik dago. Nekazal lantegi hauek, beren eremuak 197 lur zatitan banaturik dauzkate, hau da, baserri bakoitzeko lur eremuak lotuak aurkitzen dira.

Lur eremuak aztertzerakoan, Lezoko baserri tipoa bi eta hamar hektareen artekoa dela esango du-



Lezoko nekazal muga

gu, neurri hau gainditzen dutenak gutxi bait dira, eta beraien eremuen barruan basoak zerikusi haundia dute. Osoki lurraren banaketa aztertzerakoan, belardien nahusitasuna garbi geratzen da, barazkiak, loreak eta fruituak oso garrantzi gutxi baitute, eta batez ere etxerako hornidura bezala lantzen baitira. Alpalpa eta beste zenbait soro artifizial ere tarteka ikusten ditugu.

### LAUKI ADIERAZGARRIA

1 <sup>o</sup> SEKTOREKO AKTIB.	ZENBATEKOAK	PORTZENTAIK
Eremuen kopurua .....	197	
Explotazioen kopurua .....	100	
Enpresarien kopurua.....	100	
Nekazal enpresen kopurua .....	47	

EXPLOTAZIOEN ZABALERA		EXPLOTAZIO KOPU.	PORTZENTAIK
0,1 etik	0,4 Ha.tara	11	
0,5 "	0,9 Ha. "	4	
1 "	1,9 Ha. "	11	82,35
2 "	2,9 Ha. "	11	
3 "	3,9 Ha. "	14	
4 "	4,9 Ha. "	10	
5 "	5,9 Ha. "	25	
10 "	19,9 Ha. "	10	
20 "	29,9 Ha. "	1	
30 "	49,9 Ha. "	1	
50 "	59,9 Ha. "	-	
70 "	99,9 Ha. "	-	
150 "	199,9 Ha. "	1	
Lurrik gabe		1	

Baso zuhaitzek garrantzi haundia galdu dute Jaizkibel erre ezkerotik, hala ere gaur zenbait lurralde pinuz josirik ikusten dugu, batez ere mendi aldean. Tartean haritz eta ametz batzu azaltzen dira larre eta inorkinetako erabiltzen diren lurraldeetan.

Nekez aurki ditzakegu hegalondorik, gehienak lantegiek azken urte hauertan sortutako kutsadurak jota erori edo usteldu baitira, hala ere sagar urte onenetan, bertako zenbait baserritako kupelak sagardo betetzen dira, «Herrikoetxen», «Juanmartindegin»,... oraindik sagasti ederrak baitaude.

Berotegiak, ez dira bat ere ugalduta herri honetan, baserri bakar batek jokatzen baitu bide honetatik loragintzan saiatuz. Ganadu zaintza da baserritarren artean gehien zabaldua dagoen joera.

Ganaderitzak garrantzi handia hartzen du, batez ere Erreterria eta zenbait herri industrializatuen gertutasunak honera bultzatu baitiote. Batz bestea, la-rehun bat esne behi aurkituko dira, urtero 1.400.000 litro esne ematen dutelarik. Esnearen salmentan bi joera ematen dira: zuzenki kalean saldu prezio altuagoak lortuz, edo esne zetraletara salduz.

Azkeneko hamarkada honetan behi jeisteko makinak, traktoreak, motokultoreak,... eta zenbait tresna sartzen ari dira, baina hala ere oraindik behi, behor, zaldi, eta idi pareak zenbait lekutan erabiltzen dira.

ABELZAINZA	AZIENDA BURDUAK	%
Betabereak	515	15,42
Artabereak	500	14,97
Auntzak	25	0,74
Urdabereak	98	2,93
Oiloak	2.200	65,90
GUZTIRA .....	3.338	100

Nekazal enpresen aktibitatea bi aspektotan ikus daiteke: nekazaritza eta abelzaintza. Hurrengo koadroan lantze tipo ezberdinen datuak agertzen dira. Hauek Gipuzkoako Nekazal Ganbarak 1978an emanak dira.

LANTZE TIPOAK	Ha.	%
Laboreak	10	13,29
Lekadunak	-	-
Tuberkuluak	5	6,14
Loreak	1	-
Zuhain lantzeak	49	66,86
Barazkiak	6	7,75
Hegaliak	5	6,14
Matsondoak	-	-
Negutegiak	1	-
GUZTIRA .....	70	% 100



#### «GAINTZA»

Artikulu egilearen baserria, azken elurte haundian

Lantze tipoei dagokienez, argi ikus daiteke zuhain lantzearen nahusitasuna; Lantzeari dedikatutako azalera osoaren %66,86 hartuz. Garrantzi gutxiagokoa labore eta bestelakoan lantzea dugu. Esan daiteke, zuhain lantzea haundiena izanik hektareetan, baserria ganadu hazkuntzara orientatua dagoela, tuberkulu eta barazkietara baino gehiago.

Nekazal explotazio hauek, familiar tipokoak dira eta lurraren eta baserriaren jabetza, bi era ezberdinetan eramaten da. Honela 39 nekazari famili bere lur eta etxeen jabe diren bitartean, beste 18ak baiztertzen edo errentan dauzkate. 57 famili nekazari hauetatik 20k dedikazio osoz lan egiten dute, eta beste 37k erdizka.

Lezoko baserrian modernakuntza eta egokitzea hiru oztoporekin topatzen dira nahusiki: dedikazio erdizko nekazaritza, lur eremu txikiko baserriak eta lurraren garestitasuna.

### b) DEDIKAZIO ERDIKO NEKAZARITZA

Kontuan izanik, aurreko urteetan nekazaritza ahaztuta egon dela, ez da arri-tzekoa baserritarrak beren diru iturriak bat ere errentagarriak ez direla ikusirik, industriara jotzea, soldata seguru baten bila, eta honek dakarzkion beste zenbait gizarte abantaila (arriskuren kontrako seguruak, medikuntza, jubilazioa,...) eta bestelako aurrerapenen bila.

Bainan bestalde, dedikazio erdizko nekazaritza sarritan lur artisauaren desagerpenaren kontrako dema bat, besterik ez da. Gehienetan industriaren bidez lortutako diru sarrerak nahikoak zaizkio, eta honelaxe baserrian metodo tradizionalz jokatzeko du, honen errentagarritasuna gogoan hartu gaberik, geroko ahalmeneko balioarengatik lurraren jabetasunari eusten dion bitartean.

Erdizko dedikazio honek kalte haundia ekarri dio nekazaritzaren desarroiloari; Alde batetik industriaren bidez soldata seguru bat izatean, langile nekazariak ez du beharrezko premia sentitu bere lurrak eta etxeak egokitzeko, eta egokiera honen bitartez explotazio errentagarri batzuen jabe egiteko; Eta bestaldetik bere lurrak gogoki gordeko ditu; dedikazio osoko baserritarrak beren lur eremuak zabaltzeko posibilitaterik gabe gelditu eraziz.

Nekazaritza mota honek aurrera jarraituko du industria hutseko lanak bizi maila eroso baten jabe izateko ematen ez dion bitartean, eta gaur egungo krisiak irauten duen bitartean. Baina poliki poliki galduz joango da, langilearen bizi maila altzatzen baldin bada.

Nekez izango dela uste dugu, bizitzaren alderdi ezmateriala batez ere maite duen inork, erdizko baserriak behar dituen eguneroko hamalau-hamasei ordu lan egiten jardungo denik. Hareago oraindik, erdizko baserriek arazo ezekoekonomikoengatik jarraituko balute, Lezon, onik ez lioke egingo baserri aurreratu eta efizienteak lortzeko orduan.

## LURREN ETA ERREKURTSO FISIKOEN BANAKETA

PROBETXAMENDUA	Ha.	%
Belar lantzeak	70	8,24
Egur lantzeak	-	-
LUR LANDUAK, GUZTIRA	70	8,24
Zelai naturalak	205	24,12
Larreak	-	-
ZELAI / LARREAK GUZTIRA:	205	24,12
Mendi zurgarria	174	20,47
Mendi egurtsua	125	14,70
OHIANDAR LUR GUZTIA	299	35,17
Lur elkorra	-	-
Nekazal ez den azalera	272	32,00
Ibai eta lakuak	4	1,47
DENERA:	276	33,47
Herri azalera, guztira: .....	850	100,0

OHARRA: datuak 1.978an Gipuzkoako Nekazal Ganbarak eskeinitakoak dira.



Gaintxurizketako bidea elurrak estalirik. Atzean «ETXEBERRI» baserria ikus daiteke

#### **d) LUR EREMU TXIKIKO BASERRIAK ETA LURRAREN GARESTITASUNA**

Baserrien modernakuntzaren elementu nagusia lurra da. Eremu txikiko baserriak ditugunez, zailtasun haundiak aurkitzen ditugu, errentagarritasunaren aldetik, ikuiluak zabaltzeko eta makineria sartzeko orduan.

Batez beste, Lezoko baserrian lurra media bost hektareakoa denez, garbi gelditzen da alde batetik errentagarritasunaren falta eta bestaldekiko dedikazio erdizko nekazaritzaren adierazpena. Gaurko gizarteak explotazio handi eta zabaleko unitateak eskatzen ditu, eta noski Lezoko baserri tradizionala ez dago hortarako prest, eta ez bakarrik teknikaren aldetik, baizik eta lur exkasiaren aldetik batez ere. Baina baserriaren egokitzea eta modernakuntzak oztopo handi batekin topatzen da: LURRAREN PREZIO IKARAGARRIA.

Gaintxurizketa asko industrializatu zaigunez, kale ondoko lurra atxegintzarako hartu direnez, eta lur asko villa eta txaletentzako ondo saldu direnez gero, lurra asko garestitu da Lezon, eta gaur egun lurra salneurri handien mentalitatea oso zabalduta dago gure artean.

Lurrik daukanak ez du merke saldu nahi, eta danak bere aldamenekoek garai batean izan zuten oportunitate on baten zain daude. Bitartean, askotan lur hoiak ez dira behar bezala erabiltzen, eta egunetik egunera pobretzen eta hondatzen doaz.

Baina nekazariak lur gehiago behar du bere eremua zabaltzeko eta makinari egokiagoa sar ahal izateko, baina holako prezioekin topaturik, leheneko metodo eta era zaharrek jarraitzeko beharrez ikusten da. Ondorioz, nekazaritzak ezin dezake konpetitu kanpotik ekarritako produktoen salneurriekin, eta pixkanaka pixkanaka Lezoko baserriak beren desagerpena doaz, ez bait zaie, behintzat, irteera ekonomiko bat bilatzen.

## LEZOKO BASERRIEN ZERRENDA OROKORRA

Lezoko baserriei buruz bilatu dudan lehenengo albistea 1.640. urtekoa da hain zuzen. Datu hau jaso dudan agiri beran irakur daitekenez, garai hortako baserriak bi multzotan banaturik zeuden: baserri zaharrak eta baserri berriak.

### BASERRI ZAHARRAK:

Murua	Markosena	Urruleku
Bordahandia	Gabiria (1)	Apaizartzza
Kostaburu	Peliar	Altamira
Kabite	Bordatxo	Sarasti
Martizkoene	Lopene	Itsue (1)
Olatzar	Barunga	Darieta (1)
Altzate	Urdalamarta	

(1) Hiru baserri izen hauek, Errenteria, Oiartzun eta Lezoko lurak mugatu zirenean, hau da 1470. urtean, azaltzen dira lehenengo aldiz.

### BASERRI BERRIAK:

Batxilerborda	Laurenborda	Saroizar
Apaizartzaberri	Babilonia	Gaintza
Juantenea	Iparragirre	Baigorri
Abendaño	Eguzkitza	Bordaberri
Larbide	Granada	



1824 - 1895 arteko kontribuzio zerrendetan  
honako baserri izen hauek azaltzen dira:

Apaizartza	Buruntanea (x)	Gabiria
Zapatazahar	Zubixo (x)	Mendebal (x)
Zapatazaharburu	Ipintza (x)	Matejone
Juanmartindegi	Harrihaundi (x)	Darietaberri
Urunea (x)	Elortegi	Darietazahar
Larbide (x)	Arkirun (x)	Altamira (x)
Batxilerborda	Larraka	Peliar
Gaintza	Saroizar	Bordaberri
Barunga (x)	Olaziola	Altzate (x)
Barungatxiki (x)	Itsue Goikoa	Babilonia (x)
Juantenea	Itsue Erdikoa	Minkura
Irurtzun	Itsue Behekoa	Errekalde
Sagasti	Maizenea (x)	Ferreneia
Urdalamarta	Etxeberri	Behekoerretoa (x)
Urruleku	Granada	Eguzkibizkar (x)
Borda	Abendaño	Gaintxurizketa
Iparragirre (x)	Harritxurrieta	Bonatxo
Lopenea	marrukoenea (x)	Bonatxoberri
Martizkonea	Larrealde (x)	Kaxerna
Goikoerrota	Hiribarren	Burnintenea (x)
Olatzar	Torrejil	Iriartenea
Kabite	Agaramontene	Aldarrakuntza Goikoa
Eguzkitza	Bordatxo	Aldarrakuntza Behekoa
Kostaburu (x)	Mihura	
Arretxe	Herrikoetxe	
Bordatxotxoko	Iturrinea (x)	

(x) daukaten baserriek gaur desagerturik daude.

— KARLOS ETXEZURIETA SARASOLA «Gaintza» —  
«Lezoko herriaren ikuspegi sozio-ekonomiko-historikoa» (1983)